

JUAN MARI INDO / ERREPORTAJA: ELIZAKO ITUTEAK

IRITZIA: AINHOA FERNANDEZ


Zuchi

# KARKARA

89A

ELKARRIZKETA

Mirari  
Arruabarrena





**NOLA NAHI DUZU  
EUSKADI GOBERNATZEA?**

• Zeuk erabaki.

# KARKARA

Orio eta Alako aldizkaria

Kultur etxea  
20610 ORIO  
Tel. 943 83 15 27

Posta elektronikoa:  
karkara@topagunea.com

**LEGE GORDARIA** SS 346/90

**ISSN** 1132-1105

**TIRADA** 2.600 ale

**EDITORIA**

**KARKARA TALDEA**  
kultur elkartea

**ZUZENDARIA**

Ana G. de Txabarri

**ERREBAKIDIO BURUA**

Rikardo Uzkudun

**ERREBAKIDIO TALDEA**

Pat Cowie, Miren Etxeberria,  
Jakes Goikoetxea, Ana Iturain,  
Iñaki Iturain, Nere Manterola,  
Ainara Peña eta Jaber  
Zabaleta

**ALDAO ERREBAKIDIA**

Eli Lasa

**PUBLIZITATEA**

Ainara Peña

**TESTUEN ZUZENKETA**

Iñaki Iturain eta  
Jaber Zabaleta

**ALE HOMETAMO LAGUNTAZIALEAK**

Alberto Barandiaran, Ainhoa  
Fernandez eta Orioko Herri  
Ikastolako 5. mailako haurrak

**ARGAZKIAK**

Ana G. de Txabarri

**DISEÑUA**

AIALA Goio Arana

**BARRUKOA** Jaber Zabaleta

**PUBLIZITATEA** Iñigo Gaztañazpi

**AZKEN ORRIALDEKO MARAZKIA**

Iñigo Manterola

**BANATZIALEA**

Miguel Angel Sanz

**INPRIMATEGIA**

Gertu Koop. E. (Oñati)

KARKARAk ez du bere gain hartzen  
aldizkarrian adierazitako esanen  
edota iritzien erantzukizunik.

KARKARA argitaratutakoas bermam  
daieteke, osorik edo zatika,  
baldu eta iturria sipatzen hada.

## BERTSO JARRIAK

# Inauteriei

1

Kandelaria, Santa Ageda  
pasatu berriak dira,  
gure herrian holako festek  
egiten dute distira;  
aspaldidanik denok irrikiz  
gabiltza jira ta bira,  
Inauteriak, Aratustea,  
sar bitez Euskal Herrira,

3

izaten dugu Ostegun Gizen  
eta Ostiral Argala,  
larunbatean jendea normal  
igandearen karnabala,  
mozorrotuta ateratzeko  
ez da aukera makala,  
elkarren ondon izanda ere  
ezagutzen ez gerala.

2

Iturenrik Zubietara  
oinez doaz ttunturroak,  
Nafarroa da aintzindaria  
beste guztioak semeak.  
Txorimaloa, Ziripot, Sorgin  
Mielotxin eta hartzak,  
alda gaitezen denok itxuraz  
utzirik arropa zaharrak.

4

Hemen Orion oihura dugu  
Ikastolan ospatzeko,  
nagusienak prestatzenten dira  
gainontzeak pozteko,  
gonbitik gabe etor zaitezke  
parre pixkat egiteko,  
zahar ta gazteei berdin helduei  
agur denoi amaitzeko.

ORIOKO HERRI IKASTOLAKO  
5. MAILAKO HAURRAK

### 2000KO PUBLIZITATE PREZIOAK

Modulu bat .....	2.000 PTA
Bi modulu .....	4.000 PTA
Hiru modulu .....	6.000 PTA
Lau modulu .....	8.000 PTA
Sei modulu .....	12.000 PTA
Zortzi modulu .....	16.000 PTA
Orrialde erdia .....	20.000 PTA
Orrialde osoa .....	35.000 PTA

Prezio hauetan zenbaki  
baterako balio dute.  
Publizitatea urte osorako  
kontratatzen dutenei % 10eko  
deskontua egingo zaie prezio  
hauen gainean.



• Gipuzkoako Foru Diputazioak  
diruz lagundutako aldizkaria



Eusko Jaurlaritzako Kultura Sailak  
diruz lagundutako aldizkaria



Orioko Udalak  
diruz lagundutako aldizkaria

## Erregeen karterua!

Bart gauean Bizarzurirekin egon naiz. Nahiko triste zegoen. Urtekit urteria "Erregeen karterua" oihu eginez danborrari eragiten diotenak gero eta gutxiago dira (aurten hamar izango al ziren?) Eta Erregeak? Ene, Erregeak! Duela 40 urteko jantziak, duela 50 urteko eraztun eta lepokoekin, duela 60 urteko kapekin... Eta Erregeen laguntzaileak? Leondo osoa zuri-zuria, nork eta Baltasar erregearen laguntzaileak: *Ama, eta Baltasar egiazko hertsia boda, zergatik da bere laguntzailea gizonrezko? Baino, laguntzaileak ere ez al dira, ba, maguak?*

Zer erantzun horrelako galderari? Momentuan okurriru zitzaidana: *Ez lastana, Erregeak bai, badira magoak; baina, beren laguntzaileak toki guztietara ez direnra allegatzen, ba, berri bakoitzak bere laguntzaileak jartzentz ditzu.*

Bizarzorik esan zidanez, agian datorren urtean ez da kabalgatarik izango. Betiko jendea, antolatzeaz arduratzentz dena, erre-erre eginda dago. Borondate osoz aritzen dira eta keja besterik ez dute jasotzen: *Asko lastatu dira aursten Erregeak; izugarrizko botza egiten zuen eta ezin gara kabalgata osan zuen zain egon. Erregeek eskaleak dirudite, zer ean dute? ez zaitie ezer idertzen; urtero berdin...*

Agian, beti esaten dugun moduan, alkatea ote da honen guztien erruduna? Ala, agian, hori da bakoitzak bere lepoa zuritzeko erabiltzen duen aitzakia? Ez ote dugu urteko gainontzeko 354 egun horietan tartetxo bat bilatuko gure umeen egun magiko horretarako gauzak prestatzeko? Besterik ez bida ere, festetarako jartzen den diru kopuru horretako zatitxo bat harto eta hala, goazen Donostiaro Festaren Erregearen denda horretara eta eros diezaiegut, behingoz, benetako jantzia eta ez kortina paska horiek.

Agian, erosketaz norbait ardura daiteke gaur bertan. Hala ere, bida zerhait zailegoa: nork antolatuko du datorren urtean gure Erregeen kabalgata? Izan, bida gure herrian hainbat gazte talde. Agian, erreleboa egiteko garaian gauza. Baino beti bezala, borondateko kasu hauetan, badakigu...

A! Eta nire partetik zeronak aurtengo Bizarzuriri. Berak ulertuko du zergatik.

MARISA ARRUA BARRENA ELIZALDE

## Orio non?

Turismoko nazioarteko feria, FITUR 2000 dela-eta, Euskadiko stand-aren barnean gure inguruko herri askok izan



Gutunetarako

## OHARRAK

Argitaratu nahi diren gutunak KARKARAken buzoian utz daitezke (udaletxe atzeo portalean), edo gure lokalean entregatu (kultur etxeen). Posta elektronikoz ere bidal daitezke honako helbidera:

karkara@topagunea.com

KARKARAk ez du argitaratuko izenik gabe datorren gutunik. Egileak hala nahi badu, ezizenarekin argitaratuko dugu; baina, beti, guk egilea nor den jakinda.

KARKARAk bere egiten du eskutizak laburteko eskubidea.

du tartetxoa. Oso balorazio positiboa izan dela jasotzen dute egunero albisteek. Horren ondorio Aste Santuaren eta udan espero da, jendea bisitan datorrigunean.

Urola, Gnierra, Kostak ilusioz aurkeztu dute nortasuna eta berezitasuna. Baino nik hutsune bat aurkitu dut: Zumaia, Getaria, eta Zarautzen ondoan, Orio ez agertzea. Zer alkatezak uzten du alde hatera horrelako promozio interesgarria? Arkupe elkartea non dago hau ez bultzatzeko? Zer gertatzen zaio herri honi? Aspaldian herri honestako gertakizun lotsagarriak isilean egon dira. Udalak gorabehera latzak izan ditu nahiz eta halako moduan gainditu, baina benetako arrazoak ez dira akordio ilun batez gainditzen, eman denbora. Kontzentzia apur batek ezin du bestaldera begira jarraitu, oriotarrak esnatu beharrean gauza. Agian, hori izango da FITUR 2000an ez azaltzeko arrazoi nagusia eta beste gauza askorena ere: lo gaudela. Ba, kontuz esnatzean zer aurkitzen dugun.

B. MUJICA (DVTIK HARTUA)

## Orio non? (2)

Ortziaren 12ko Diario Vasco egunkarian gutuna argitaratu zen, 'Orio non?' izenburuaren, FITUR-2000ko Euskadiko stand-ean Orio agertzen ez zela-eta kezka agertuz. Aldez aurrek eskerrak eman nahi dizkio gutunaren egileari erakusten duen kezkatik, eta, KARKARAk eskaintzen digun aukera baliatuz, kontu pare bat argitu nahi nuke,

oriotarrek jakin dezaten.

Batetik, jakin behar da Orio gure eskuadorean pakete turistiko osoaren barruan sartuta dagoela, 'Kostaldea-Costa Vasca' izenak Zestoa, Zumai, Getaria, Zarautz, Aia eta Orio biltzen baititu. Bestetik, eta kanpitari dagokionez, Kanpinen Euskal Federazioaren eskutik ibiltzen gara, eta, gainera, protagonismo berezi batekin, gure kanpineko zuzendaria izaten baita stand-ean egoten dena azoka garrantzizkoen eta. Bisitariak erakartzeko aukera hikaina du, beraz.

1999an honako azoketan izan ginene: Madrilgo Expo Ocio, martxoaren 13tik 21era; Bartzelonako SITC, apirilaren 29tik maiatzaren 2ra; Bordeleko Foire Internationale, maiatzaren 13tik 16ra; eta Valladolideko Intur, azaroaren 25etik 28ra.

2000an, berriz, zazpi azoketan parte hartuko dugu (batzutan izan gara dagoeneko).

Bukatzeko, adierazi nahi dut legealdi honetan batzorde bat sortu dela propio, sustapen ekonomikoa, turismoa, merkataritza eta enplegu lantzeko, badakigulako hirugarren sektoreak garrantzi handia duela herriaren ekonomiarentzat.

Ez nuke nahi inork erantzun gisa hartzerek idatzi hau. Kontu batzuk argitzeko baizik ez ditu egin, eta berri diot bai nik eta bai Udal Korporazioak benetan eskertzen dingula oriotar kezkatuak izatea, beren laguntzarekin hobeto gestionatuko baititugu dantzakun errekurtoak.

**ORIOKO ALKATEA (ERREDAKZIOAN ITZULIA)**

## UlerGAITZA

Euskal Herriko rock and roll-ak ez du inoiz diririk emanen, Gaitzak ez du lokalik izanen, ta ezex ez da herdin?

No future, honela ezin leike hemen ibili, ez da posible, ezin liteke, hipokrisiari stop!

Udaletxe bat basen, orotan bihotzbera, rock and roll-aren hegoek Gaitzako bertsioek antza aldatzen zutena, Irakurle maite, otoi barkamendu, ez badut bozkarioz kantaldi hau ondu, jostetako gogoa dantate kendu, lokala nahi duenak aunitz sofrizten du.

Baina bat-batean musika amaitu egin da, eta mahai azpian norbait kantatzentz hasi da: reggae, punk, ska eta fandango, Gaitza lokal gabe dago. Rock and roll-a batzokian? Maizto!

**PATXI URANGA**

Gutun gehiago 31. orrialdean.

# Nola ikusten duzu Kultur Etxearen funtzionamendua?



**AINARA PEÑA**  
22 urte

Kultur ekintza batzuk antolatzen dira; baina, agian, ez nahikoak. Betiko jendea ibiltzen da Kultur Etxean, eta antolatzen diren ekintzak ere antzekoak dira beti.

Agian, sartzen ez den jendearentzat ekintza eraginkoarragoak egin beharko lirateke; adibidez, konferentzia gehiago, hitzaldiak gai ezberdinak landuz...



**EGOITZ EIZAGIRRE**  
16 urte

Kultura ekintzak gutxi bultzatzen dira. Laguntena gehiago beharko litzateke antolaketa lanetan.

Gazte jendea asteburuetan herrietan gelditzeko ez dago ezer. Orokorean, kultur jardueren gutxi eskaintzen du Kultur Etxeak.



**IGOR SALSAMENDI**  
24 urte

Bizitason gehiago beharko luke; erakusketaik sartzen da jendea, baina hortik aurrera ez da somatzen mugimendu handirik. Betiko bilera eta ekitaldiak egiten diri; ez dago ekitaldi orijinalik ia.

Kultur etxea ofizialegia dela iroditzen zait, berriengia. Gazte jende gehiago sartzea lortu behar da.



**M. CARMEN EIZMENDI**  
52 urte

Bilerak eta erakusketaek egiteko nahiko ondo antolatuta dago. Gainera, liburutegia eta Ostargiren lokala dela-eta, unea eta heldu dezente ibiltzen da hara eta horra. Hala ere, gehiago lagundu beharko litzateke herriko taldeei, bai diru aldetik eta baita antolaketa lanetan ere.

**ORIOKO OGIA HORRIGI**  
OPIL OKINDEGIA  
Frontoi ondoan  
Tfnoa: 943 83 01 89

**PATXI OLIDEN**  
Eusko Gudori, 25 Tel. 943 83 00 10

Hemengo horrigia.  
Etxeko produktuak: triplex, odolki, txakorro, txarizo, kroketak...

**HERRI IKASTOLA**

ABESLARI KALEA, 8  
TEL: 943 83 47 04  
FAX: 943 13 09 38

**ALUYOLA, S.L.**  
*Fatiña Aspasia*

LEHIOAK, ATEAK, PERSIANAK  
P.V.C., ALUMINIOA,  
POLIURETANOA SISTEMA  
PERFIL THERMIKOA

PRESUPUESTOAK KOMPROMISOK GARE

Jaizkibel plaza, 8 LASARTE  
Telefona: 943 36 22 77



TRIBUNAL DE GUDI. Saneamendu sarean era gatzietako zikiniek azaldu ohi dira.

# Arazoak ur zikinekin

**■ Udazkenean basiko dira Bebek Kalea zulatzen.**

*Azkenaldian kirats  
bandia sentitu omen da  
zenbait kale bazterretan.  
Arazo boriek ur fekalak  
bideratzeko sisteman  
izandako ataskoek sortu  
dituzte. Eusko Gudari eta  
Aritzaga kaleak zulatuko  
dituzte datorren udazke-  
netik aurrera, saneamen-  
du sare berria sartzeko.*

Herritar batzuk kexaka zebil-  
tzan aspaldian, zenbait tokian  
sentitzen zen kiratsa zela-  
eta. Udalean jakin dugunez,  
hori guztia ur fekalak bidera-  
tzekeko sisteman izandako arazoengatik gertatzen da.

## BONBEO PLANTA

Herriko ur fekalak ponpaketan  
plantaren bidez kanporatzen

dira. Saneamenduko obrak  
egin zirenetik, bonbeo planta  
hori frantzez fabrika ondoan  
jarri duten hapore puentear-  
ren barruan dago. Han, aile-  
gatzen diren hondakin solidoak  
txikitu egiten dira eta,  
ponpa baten bidez, Zarauzko

depuradorara bidaltzen dira.  
Depuradoratik pasa eta gero,  
itsasora bideratzen da Moila-  
rri inguruko emisarioetik ha-  
rrrena.

Bonbeo plantara errioaren  
azpitik pasatzen den hodi ba-  
tetik iristen dira hondakinak.

## HARIARI TIRAKA

### Komuneko zulotik behera

**Amaia Usandizaga, Udaleko arkitekto teknikoa**

Saneamendu-sareca herriarena da, eta herritar guztioek  
egin behar ditugu ahaleginak sare horrek egoki funtzi-  
oan dezan.

Batzuek edozer gauza botatzen dute komuneko zulotik  
behera: kompresak, tamboiak, salvaslip-ak, toalla busti txikiak eta abar. Produkuen horiek ez dira biodegradableak, eta  
ataskoak sortzen dituzte hondietan eta honbeoko plantan.  
Beste batzuek atun-buruak ere bota izan dituzte komuneko-  
ra, eta horrek arazo handiak sortu izan ditu behin buin  
gehiagotan. Txukunagoak izan gaitzen!

Arostegineko horretatik 18  
metroko sakoneran sartzen  
dira eta, errioa gurutzatuz, 22  
metroko sakoneran allegatzen  
dira honbeoko plantara. Kontu-  
da planta honek ezin duela  
txikitu hondakin kanitare  
handia batera eta, horregatik,  
ateska batzuk jarri zituzten  
herriko hondietan, zaborrak  
plantan ez pilatzeko.

## ATASKOAK HONDAKIN SOLDOENGATIK

Ateska horietan komunetik  
behera botatako hondakinak  
pilatzen dira, eta horiek era-  
gindako ataskoak sortzen du  
kaleko kiratsa. Azkenaldian  
ateska horiek desataskatzen  
aritu dira herriko langileak eta  
denetarik aurkitu dute. Goi-  
goiko argazkian ikusten den  
moduan, animalien tripak eta  
barrunbeak ere aurkitu dira  
beste gauza askoren artean.  
Arazoa zenbaterainokoa den  
jabetzeko, nahikoa da datu hau  
ematea: orain dela aste pare  
bat, udaldeko langileak atas-  
ko libratzen ari zirela, arku-  
me oso bat atera zuten, istel-  
ustela. Xixarioneko pare ho-  
retako arketatik, Toki horre-  
tan biltzen dira Eusko Gudari  
kaleko hodia eta plazaldekoak,  
eta hor izaten dira, gehiene-  
tan, arazoak.

## UDAZKENEAN OBRAK HASIKO DIRA

Ramon Etxeberria, Obra eta  
Zerbitzueta batzordeko  
buruaren esanetan, udazke-  
nean hasiko dira ur zikinak  
bideratzen dituzten hodiak al-  
datzen. Orain, Eusko Gudarien  
eta Aritzagan, batera joa-  
ten dira euri urak eta fekalak,  
hodi bakarrean. Obra egin eta  
gero, euri urak hodi batetik  
joango dira, eta ur zikinak,  
berrik, bestetik. Beraz, Eusko  
Gudarien kalea, plaza inguru-  
ra eta Aritzaga kaleak zulatu  
beharko dituzte goitik behe-  
ra. Aldi berean, espaloiak ere  
berrituko omen dituzte dena  
txukun-txukun lagaz. Udalean  
esandakoaren arabera, askolu-  
zatuko dira lan horiek —urte  
beterik gora— eta pazientzia  
handiz hartu beharko da.

## Gizarte zerbitzuen informazio orria

AZURZANETIK du izeña Ongizate batzordeak ateria duen berri paperak. Gizarte zerbitzuen berri dako informazio orriak eta hiru hilabetez behin kaleratuko da.

Lehenengo alean azaltzen ez bada ere, martxoan hada nobedaderik. Bi hilabetetik behin antolatuko dira hitzaldiak. Hil honetan Julian Bereziarturen bisita izango dugu. Gainera, Medicus Mundiren erakusketa bat izango da martxoaren 7tik 15era Kultur Etxean. Erakusketa Sebastián Salgadok egindako Brasilgo Lurgabeen Nekazarien inguruko argazkiez osatuta dago.

## Argazkiak Salatxon

M. GRACIA de la Horch kataluniarren argazkiak daude ikusgai Salatxon. Montajea eta argazki sortzailea lantzen du gehienbat.



**POSTUAK EGITERI.** Giustura aritu dira postuak egiten, ez dira bain guztira egungo morik pasatzen ez bain.

## Kontrapasarako postuak

ARRAUN ELKARTEKO EHIZTARIEK chizerako postu berriak egin dituzte herriko lurretan. Guztira 82 postu jarri dituzte eta horien banaketa egunero egiten da, zozketa bidez, udaletxe azpian.

Postu horiek udaberriko kontrapasarako prestazi dituzte, kostaldean toki ona baita pago-usoak ehizatzeko. Otsailaren 13an ireki zen chizerako epoa eta martxoaren 26a arte iraungo du. Kontrapasako legeen arabera, postu bakoitzean bina lagun egon

daitzke eta bakoitzak seina pieza harrapatu ditzake, gehienez.

Elkarteko ehiztariek esan digutenez, oraindik ez da ia usorik pasa, eta noiz pasako zain omen daude denak. *Hego baizea komentu da usua iparralderantz pasatzea; eguraldi txarrarekin beste leku batzuetatik herrena pasatzen da.* Postuak eraikitzeko garaiam izan duten laguntza eskertu nahi izan dute ehiztariek; batez ere, parte hartu duten lurjabe eta baserritarrena.

**ertza**  
usaindegia

Teléfono: 943 83 10 00

**Pelukeria eta estetika misioa**

**ZASS**  
Diseño vegetalista de alta calidad naturalista  
Hacienda Jardines de la Reina  
Asturias asturias  
Peluquería  
Depilación

Ses Bikolar, 2 Tel: 943 83 21 70

**AUTOAK AUKERA ONEAN**

**AIA ORIO**

Telefonos: 943 13 04 38

**TANATORIO ZARAUTZ**  
EUROFUNERARIAS TALDEA

**Hileta eta zerbitzu orokorrak**

**SAGARDOTEGIA**  
**SATXOTTI**

Berezitasunak:  
bakallao frijita □ txuleta □ antxumea borduntzian □ bakallao tortilla

Aiako Santio auzoan  
943 83 57 38  
Urte osoan zabalik!

**ENGLISH**  
**Dublin**  
**eta**  
**Cambridge**

Informazioa  
943 13 21 31

Dososisa eta probintziako ospitaleetan  
• Aldioroko zerbitzua  
• Belotarri gelak  
• Koroiak, eskelak, tramitziak...

Araba kalea, 35 Zarautz  
Tel/Fax: 943 13 22 52



**EUSKAL HERRIKO KULTURA** Kampaia daude saritua jasterik izan ez zutenet, bere sunitartekoak joan zirene saria jasotzen.

## Oparoa izan da aurtengo literatur upta

■ Saritutako bi lan erbestean egin dira: Australian eta Italian.

HORIZAN DA aurtengo berrikuntza "Euskal Herriko Gazte" Literatur lehiaketan, saritutako bi lan erbestetik bidali haitituze, Italiako Torinotik eta Australiako Sidneytik. Dena den, iazkoan haino lan gutxiago aurkeztu da; hala komentatu zuten sari banaketa ekitaldian epaimahai lanetan jardun direnek.

### SARITUAK

Ipuinen arloan 1. saria Zigor Etxanizk irabazi du, *Mirenren izena* izeneko lanarekin. 2. saria Iñigo Fernándezentzat izan da, *Balde bete angula* ipuinagatik. 3. saria Iñaki Gurrutxagak eskuratu du *Inurako hudentriak* izeneko ipuinarekin. Akzesita, berriz, Olatz Elustondoren tzat izan da, *Seigarren* titulidun lanagatik.

Olerki arloan Iñigo Fernándezentzat izan

da lehenengo saria, *Amarranteak ez daki olerki ederragatik*. 2. saria Urko Esnaola eskuratu du Australiatik bidalitako *G'day mate* hertsu-sortarekin. Eta hirugarrena, berriz, Iñaki Gurrutxagarentzat izan da *Heriotzaren jenerala* izeneko bertsoengatik. Olerkien arloan bi akzesit eman dituzte, Zigor Etxaniz eta Iusei Alguacilenzat. Azken honek Italiatik bidalitako e-mail batzuk agurtu zituen sari banaketa joandakoak.

### BESTE BI SARI ZIGOR ETXANIZENTZAT

Deia egunkariak antolatutako Ostadar ipuin lehiaketan Zigorrek hirugarren saria eskuratu du aurtzen eta Portugaleteko literatur lehiaketan, aldiz, 2. saria. Beraz, ez du agortzeko bildurrik Zigorren literatur iturriak.

## BERRI LABURRAK

### Saharako umeak hartzeko deia

GIZARTE Zerbitzuen batzordeak bultzatuta, surreta jarraitzen du Mendebaldeko Sahararen aldeko kampainak. Herrialde honen egoera politikoa salatzeko, gutunak bidaltzeko eskaria egin du Euskadiko Frente Polisarioaren ordezkaritzak. Gutun horiek hainbat gobermuri eta NBE (Nazio Batuen Erakunde) -ko presidenteari bidaltzeko diri eta Gizarte Zerbitzuen bulegoan eskura ditzakeue.

Bestalde, "Oporrak bakean" programaren barruan, uztailean eta abuztuaren hango umeak etxean hartzeko prest dauden familiak behar dira. Izen emateko epea martxoaren 6tik 15era bitartekoa da. Interesa dutenek Gizarte Ongizateko bulegora jo behar dute.

Atur laten bilketa bukatu da dagoeneko, 100 bat poltsakada jaso dira, gutxi gorabehera.

### Salatxo abesbatza Legazpin

DATORREN apirilaren 1ean, aurtengo lehen kontzertua emango du Salatxo abesbatzak Legazpin. Arratsaldeko 8etan izango da Santa María de la Asunción izeneko elizan. Herritarrok animatu nahi ditu Salatzok hara joateko.

**MAPFRE ASEGUROUAK**

LABORARGI, S.L.  
AHOLKULARITZA (Fiskal, Laboral, Kontrabida,  
Finanzas, Aseguramiento)

EUSKAL GUARDIA SEZ. I.T.E. - TEL: 943 15 57 20 FAX: 943 83 52 98 - 29610 ORIO

**GOIZEKO**

\*KAFETEGIA  
\*IZOZKIAK  
\*CROISSANDREGIA

Pasteleriko  
enkarguak  
hortzen dira

Aita Lertxundi, 33  
Tfno.: 943 83 28 55

## Ostiralean Jai

UDA partean egin izan den moduan, hemendik aurrera Ostiraleroko kontzertuak izango ditugu herriko hainbat tahernatan Ostiralean Jai programaren barnean. Da-goeneko hasiak dira kontzertuak. Morauk eta bere taldeak jo baitzuten Kolon Txikin otsaileko azken asteburuan. Hurrengoak honako hauek dira: martxoaren 3an, Piztiak K2 tabernan; martxoaren 10ean, 12 Tribu Kolon Txikin; martxoaren 17an, Ostantzako Goizekon; martxoaren 24an, Triki ta Ke Koastan; martxoaren 31n, Xuia reggae band Salatxon; apirilaren 7an, Lorelei K2n; eta apirilaren 14an Jaki Berkoetxea Salatxon.

## Konzentrazioa hilketak gitzestuz

FERNANDO Buesa eta Jorge Diezen hilketak salatzeko konzentrazioa egin zen herriko plazan otsailaren 23an. Udalak deituta.



**TRONENAK GAZTEEN LAGUNZALEKIN.** Dantzari txikienek gazteen lagunetza jau zuten beren dantzak egiteko.

## Dantzari txikien emanaldia

PASA DEN LARUNBATEAN arratsaldeko 6etan hasita, urteroko emanaldia eskaini zuten Musika eskolako dantzariekin. Beti bera-zala, jendea erruz hurbildu zen frontoira eta barre pixka bat egiteko aukera izan zuten dantzari txikienekin.

Pilotaleku goraino bete zen. Eserleku guztia segituan bete ziren eta ehun lagunetik gora ziren zutik ikusi behar izan zutenak.

Emanaldia bizi-bizia izan zen. Txandaka-txandaka atera ziren dantzariak pistara, txi-

kiak eta handixeagoak nahastuz. Guraso, aiton-amona eta lagunez osatutako publikoak gogoz jo zuen txalo emanaldi guztien bukaeran, eta, zalantzarak gabe, txikienden saino izan zen arrakastatsuena.

Oso ikusgarria izan zen, baita ere, DBHko gazte batzuek eskainitako koreografia beretza. Grisez batzuek, eta urdin ilunez beseteek, sentimendu handia jarriz egin zuten dantza, eta ikusleek oso gustura txaloru zituzten.

## ARRALDE

SAGARDOTEGIA - JAIETXEA



EROTAZELA II  
JAIETXEA  
Dagune: Martesak 1.1.98  
Tel: 943 83 01 21  
Arg. Akats

## MAKAZAGA

Ipsalherrikua

- Igeltseritza orokorra, deneanek egiten duugu
- Prezumptuazioa, eskalatu, kompromisoaik gabe

Lan txandaka eta  
merkeza

Tfnoa: 943 83 59 00

## RAMIRO

Esko ezazu  
zure txanda

943 83 10 48





**GAIZTAIAK NAGUSI.** Bartzarriera bertaratu ziren horzkideen artean edadetsuak ziren nagusi.

## Arraun Elkartearen ohiko batzarra

KULTUR ETXEKO ARETO nagusian egin zuten Arraun Elkarteko kideek urteko batzar nagusia otsailaren 18an, 70 bat lagun elkartu ziren eta direktibakoek azaldu zituzten fazko denboraldiaren nondik-norakoak. 13 bandera irabazi ziren denera: 8 traineruan, 1 zortzikoan, beste 1 arraun ergometroan eta beste hiru bateletan. Arraunketa olin-pikoan 19 izan ziren lortutako dominak: urrezko 11, zilarrezko 5 eta brontzezko 3. Diru-sarici dagokienez, 7.202.000 pezetakoak

izan zen; denak arraunlarien artean banatuak, jakina. Traineruak dagoeneko irabazi du aurtengo lehenengo estropada. Aginagatik Oriorainoko jaitsiera, alegia.

Betalde, Sofholatxaleko OBBkere aukeztu zuen 1999ko kirol memoria. Ohorezko mailara igotzea lortu zuten iaz eta aurtengoa erronka handia izango dela diote, hai kirol arloan, hai ekonomikoki, Madril, Bartzelona, Valentzia, Iruñea eta Zaragozara egin beharko baitituzte bidaiaiak.

## HANDIK ETA HEMENDIK

### XABIER ARZALLUS

Politikoa

"Oriotarrak balea harrapatu zuteneko bertsoak oso politikak dira; horrelako bertso luze, eder eta politikak, gutxi."

ETB 2000/02/04

### MANUEL LASARTE

Bertsolari eta idazlea

"Juanito Iturain urte mordoa prest egon zan edozein pelotariren kontra jokatzeko palaz, eskuz eta erremontez, baina inork ez zion aurre egin."

DIARIO VASCO 2000/01/17

### J.A. OLASKOAGA

Aizkorriar

"Arraunketa utzi eta aizkoran hasiko naiz."

ZABALIK 2000/02/12

**Niki Garate**  
Aseguramiento  
Euskal Gudari, 14 Jatetx / 3. Tfnoa: 943 13 46 07

**URBAZTER**  
ASEGURUA  
AHOLKULARITZA  
SUN. NIKOLAIA, 5  
TEL-FAX: 943 13 33 19

**ODITZ**  
HORMA ZABALERO DINETAKOAK  
GIZON ETA EMAKUMENITZAT  
TEL: 943 83 00 89

**Marija**  
ileapaindegia  
Testu, eta, multimediatik

**ZUMINTZA**  
- Diagnosologioa  
- Estetika  
- Odontologia  
- Siurra  
Tfnoa: 943 83 17 58

**GABON**  
Plater kombinatuak,  
pintxoak eta txokolatazak  
Tfnoa: 943 83 06 09

**REGALATO**  
Etxeko helatuak eta  
kruasanzak  
San Nikolas, 17 Tfnoa: 943 13 17 47

- Estetika
- Masajea
- Tatuaiaik

Eusko Gudari, 8  
Tel. 943 13 47 29

# Juan MANTZSIDOR



## ‘Galduta ibiltzen naiz umerik gabe’

*Herriko plazan ematen du arratsaldea Juanek; ez bakarrik, ordea, baurrez inguratua baizik. Betidanik izan da umezale, eta berriko umeak ere gustura asko egoten dira berarekin. 59 urteko gizonezko bau itsasoan ibili da urte askoan, oruin dela biru urte erretiroa bantu zuen arte. Hala ere, ez omen du astirik aspertze-ko bere inguruan haurrak dituen bitartean.*

### Zer dela-eta zara horren umezale?

Gazte-gaztetatik izan naiz umezale, herentziatik jasoa dute zaletasuna, etxekoak ere oso umezaleak izan baitira.

### Zer behar da haurrak hain pozik edukitzeko?

Goxotasuna, batez ere. Esku onekoak izan gari beti familiak.

### Gaur egungo umeek baino litxarreria eta erregalo gutxiago izango zenuen noski?

Bai, Orain litxarreria gehiago izaten dituzte baina lehen baino gutxiago jaten dute. Badakizu, hortztarako txarra

den horretan, gehiago zaintzen dira. Hala ere, nik beti edukitzen ditut karameloak aldean: sugusak, txilpeak eta abar, eta askotan ematen dizkiet.

### Jolasean ere ez al dira orain gutxiago aritzen haurrak?

Bai, denbora ere gutxiago dute -eta. Musika, dantza, partikularra eta horrelako kontu asko dituzte eta ez dute jostatzeko denborarik apena. Gaur egun, gainera, haloarekin eta ibiltzen dira eta lehen kanika, txiba eta horrelakoekin jarduten ginen jolasean.

### Zer poz klase ematen dizu -beti ume artean ibiltzeak?

Galduta ibiltzen naiz beste-

la. Paseatzea asko gustatzen zait eta egun osoan ez naiz geldi egoten; baina, arratsaldea ailegatzen denean, haurraren beharra somatzen dut.

### Nola da posible haur batzuek tratu txarrak jasotzea etxearen bertan?

Hori krimen ikaragarria da. Hala ere, Orion ez dut ezagutzen horrelako kasurik, ez dut inoiz ikusi umerik hurbeldu naharmenekin.

### Umea ez al da sekula jo behar edo, beharbada, batzueta zaplasteko bat komenigarria izan daiteke?

Nik uste dur haitz. Tarteka ipurdiko bat jasotzeak ez die kalterik egiten. Lehen askoz gehiago jasotzen genuen, bai etxean eta baita eskolan ere. Hala ere, oruin errespetu gehiago sartzen da jo gabe.

### Zergatik jaitsi ote da, zure ustez, horrenbeste jasotze tasa Euskal Herrian?

Ekonomiagatik. Gaur egun ume bat zaintza asko kostatzen da. Bestalde, gaur

egun, nahi ez duenak ez du umerik izaten. Lehen, nahi gabe ere, asko gelditzen ziren haurdun.

### Orion ez al dago neskazahar eta mutilzahar gehiegia?

Bai asko dago. Ni ere bai, tarteko. Hala ere, lehen gehiago zeudela pentsatzen du nik. Orain ezkondu edo elkarrekin bizitzen jende gehiago jartzen da.

### Zu haur zoriontsua izan al zinen?

Bai, oroitzapen horiek ditut, behintzat. Jolasean ari-ten ginen asko; batez ere, errio basterrean. Hantxe ibiltzen ginen gu, txalipa eta arraun tartean beti.

### Itsasoan ibilia zara urte askoan, nola ikusten duzu gaur egungo egoera?

Ni 14 urterekin hasi eti orain dela hiru urte arte, 56 urte nituen arte, ibili nintzen itsasoan, eta oso gogorra da lantegia. Orion bestelako enpresa gehiago balego, ez litzateke inor joango itsasora.



ARRAUNA

## Klaudio Etxeberria 'Gorria' joan zaigu

OTSAILAREN 8AN KLAUDIO Etxeberria hil zitzaigun. Oriok historian eman duen patroirik onenetakoak. Urte askoan ibili zen patroilaren Gorria: Aginagan, Tolosan, Juizkibelen, Orion, Ibarra, Lasarteko Michelinen, Getarian, Hondarrabian, Donostian, Zumaien, Arkote-Bermeon eta, azkenik, 1997an, Ondarroan. 113 bandera irabaziak zituen guztira (Kontxako lni), horietatik Zumaien 1984an lortu zituenak dira ezagunenak, denboraldian

jokutusko estropada guztiak irabazi baitzitzen.

Berari buruz galdezian, hauxe zioen Jose Luis Kortak Egunkariak: *Bere gorriak patroi onenetakoak izan zeu. Juanito Lizarraldek Altxerrik, berriz, Klaudioren izacerari heldu zion: Erretxinak egiten zen galduetakoan, baina ez zen bibotz txarrekoak.*

Hiletetan jende asko izan zen, tartean arraun munduko lagun ugari.

**TELMO DEIMAREN  
GARAI OFAROA.**  
*Klaudio izen  
zeh  
Zumaiako  
tranmeruren  
garai  
huazetako  
patroia.*

**KORRIKA**

**Kamel Ziani**  
Seuleko maratoian

MARTXOAREN 12an korrituko da Seulgo maratoia, eta han izango da Kamel Ziani. Azkenaldian krosoan ibili da maratoia prestatzeko. Ez da lehenengo aldia izango berarentzat, lehen ere egin izan baitu maratoia.

**SOFBOLA**

**Bi kategoriatan  
txapeldun**

EUSKADI mailako liga mistoa jokatu zen otsaileko azken asteburuan herrian. Orioko Bate Bizkorra txapeldun geratu ziren bi kategoriatan: junior eta seniorretan.

**HERRI KIROLAK**

**J. A. Olaskoaga**  
aizkoran hasi da

JOSE ANTONIO Olaskoaga, *Aizperro*, arraunketatik laga eta aizkoran hasi da aurten. Donato Larretxea da irakasle, teknika hartu beharra baitauka, baina fisikoki bere kasara entrenatuko da. Uztaileko Gipuzkoako 3. Mailako Txapelketan izango da.

**AHOKULARITZA**  
Fisiko, laborato, kontaketa

*Eugenio Garmendia*

ASEGURU ARTEKARIA

IBAI ONDO, 1

Tel: 943 83 44 66 - 943 83 49 17

**BORDATXO**

- Bokadilloak
- Marisko rizto bereziak

Tel: 943 13 30 14

**AUTO-LAN**

- \*Auto konponetak
- \*Olio eta gurpil aidaetak

Vitoria/Gasteiz  
943 25 79 31

**URAITZ**

LURGINDEGIAS

**KIROMASAIA**

LEHIAKIA, 1 DENDA 943 83 13 70

**OLIDEN  
HARATEGIA**  
Eusko Gudari, 2  
Tel: 943 83 10 86

**LIZASO**  
ERLOJU DE  
BITXI DENDA  
ORIO, KAIAS 5 TFNOA: 83 10 90  
ZARAUTZ, IPAB 6 TFNOA: 83 17 43

**ALLIANZ-RAZ  
ASEGUROAK**

Allianz  E&S  
MARIÑE ZALDUA

Ampliamente  
representado

Bai Ondo, 10 behe-saria

Tel: 943 13 47 60

**GURE TXOKO**

**TABERNA**

ARIZAGA KAI

## MENDIA

### Ibilaldi neurria Azkoitian

URTERO egiten dira ibilaldi neurriak Gipuzkoako eskualdeetan. Urola-Kosta-ri dagokionez, Azkoitian izango da martxoaren 12an eta Talai-Mendiren bidez joan daiteke edonork. Autobusa goizeko zortzietaan ahotuko da eta baxkal ordurako bueltatu; goiz buelta izango da, beruz.

Bestalde, apirileko Pilmeotarako irteera prestatuko dute Talai-Mendikoek. Kartelak jarriko dituzte martxoaren bukaeran irteeraren beerrir emanet.

## PILOTA

### J. A. Atorrasagazti eta M. A. Eizmendi udaberri sarketan

GIPUZKOAKO txapelketarako sailkatu ex direnez, federazioak antolatzen duen Udaherria sarketa jokatzan arri dira oriotarra eta aiarra. Dagoeneko, finalera iristea lortu dute. Fittala martxoaren 19an izango da Donostiako Balda frontoian, Palae eta gomazko pilotaz jokatzan dute eta aurreneko aldiz harta dute parte aurten.



KATUBELTZAK. 'Katubeltzak' motziazale taldearen kamarak irabikiko dituzte.

## ESKUBALOIA

# Talde berria hasi da jokatzen

OTSAILEKO AZKEN ASTEBURUAN hasi ziren partiduak jokatzan herriko eskubaloia talde berrikoak, Lehenengo Orion jokatu zuten, Zaragueta eskolak, eta nahiz eta irabazten hasi, ezin izan zuten garaipenik lortu: 15 eta 20 galdu zuten. Gazte jendea zen nagusi ikusleen artean eta oso giro ona izan zen. Iñigo Morenok, entrenatzaile lanetan aritzen denak, zera zioen lehenengo partidua bukatzean: *Aste hete dataramagu entrenatzzen eta, bala ere, nabikoa itsura ona eman dugu. Aurrerantzean astebururo bi partidu jokatu beharko dituzte, berandu samar*

basi haitira.

Talai-Mendiren izenean arri dira jokatzen burokrazia kontuak errazteko. Taldea, sortu berria denez, maila baxuengana hasi da Kopu jokatzan. Momentuz nahikoa omen dute horrek, jokalarietako batzak eskubaloian inoz ibili gabeak baitira. Hala ere, gogotsu ekin diote, entrenatzaileen poderioz hobetuko dutelakoan. Horretarako herritik kanpo (Usurbil eta Zarautz) eskubaloian aritzen direnen lagunza izango dute. Taldea indartzeko, lau usurbildar fixatu dituzte.



# Hau denon gauza da!



AINHOA FERNANDEZ  
IKASLEA

**'Hortxe daukagu  
ESAIT, euskal selekzio  
ofiziala lortu nahian  
dabilena, beste  
hainbat kirolariekin  
batera, baina hori ez  
da nahikoa.'**

**A**zken urteotan gauza dezentre entzun ditugu euskal selekzioari buruz, Badiarudi es painiar gobernuak eta kirol erakunde batzuek ez dute la onartzen Euskal Herriak bere burus ordezkatzea nazioarteko txapelketetan.

Gatzka hau aspalditik dator, baina orain hasi gara denok zerhait gehiago entzuten gai honen inguruan ESAIT taldeari esker (Euskal selekzioaren aldeko iritzi taldea).

**BAINA HORREK EZ** du esan nahi arazoak konpondua dagoenik. Bai, hortxe daukagu ESAIT, euskal selekzio ofiziala lortu nahian dabilena, beste hainbat kirolariekin batera, baina hori ez da nahikoa. Hamaika kirol federazio dago Euskal Herrian, eta bukoitzak (kasu bukoitza ezberdina dela kontuan hartuz) arazo honen ondorioak jasan behar ditu. Adibidez, Nuarbeko sokatira taldeko kide Luis Gurrutxagak esaten zidan bezala, berek dominak ere galdu dituzte nazioarteko txapelketetan euskal selekzioaren alde horrokan jarduteagatik. Goikoen presioak ere izan dituzte. Eta urrutira joan gabe ere, Orion, arraunarieki, goi-mailako konpetizioetan parte hartu nahi badute, Spainiarekin jokatu behar dute, eta besteha... ahaztu arraunaz.

Eta guk, herritarrok, zer egiten dugi? Ezer

gutxi. Nire inguruko jendeari dagokionez behuntzat, ez dago interes handiegirik gai honen inguruan. Bai, denok gaude euskal selekzioaren alde, nola ez? Baina horrek ez du ezerterako balio jendea ez bida hasten hori kalean azaltzen. Ibon Urbietak esan zidan bezala: *jendeak arte du etxeko sofatik protesta eginda nabikoa dela eta bestea kirulakiek konpon dezatela... bai denon gauza da.*

**BESTALDE, BESTE ORIOTAR** batek, Eugenio Arbesuk, Euskal Herriko izotz hokey selekzioari hartu du parte orain dela pare bat aste. Frantziaren aurka jokatu dituzte bi partida eta argi geratu da selekzio propioa izateko nahia.

Bada garaia kontzientziatzeko hometaz eta zeozer egiteko, Egia da badirela kirolariak euskal selekzioaren alde daudentak eta es painiar selekzioarekin jokatu ohi dutenak, baina zergatik? Batzuk, konforme dandekoa; eta besteak, aldi, aurrena jarraitu nahi badute eta Euskal Herriari dagokionez, ezaguna egin nahi badute herri hau kirol horretan, beste biderik ez dantza; bai da, Euskal Herriaren omurarako.

Beraz, gutxiago hitz egin eta kritikatu eta has gaitzen lanean!

95.5 / 103.7 / 88.0 MHz

**Xiberoak**  
eraik beza  
**botza**

## ALKARREKI ERAIK DEZAGÜN XIBEROKO BOTZA !

### Izen - deitura

### Helbidea

### Herrialdea

- 1000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoako Botzari
- 2000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoako Botzari
- 5000 pezetako laguntza bat ematen diot Xiberoako Botzari
- ..... pezetako laguntza bat ematen diogu Xiberoako Botzari

Gure kontu korrentearen ezaugarriak : Kutxa

2101 0045 91 001092747.3

Xiberoak eraik beza botza - P.K 7 - 64 130 MAULE

Tragoxka  
Pub

Arizaga, 11  
943 13 08 21

Ondarre  
DONIBANE

Abetxuri, 4 - Tel: 943 13 41 70

URANGA  
Bistrobar

Oñati, Bermeo, Bermeistak

Tel: 943 83 23 56 Eneko Gorro, 3

Iturain  
estankoa

Arizaga Plaza # 13 44 73



**TEILTAKU AZKIAK.** Gutzik ezagutako dizen elizako txoko han. Teiltakua eta beherik ikustea den gain barrik gangoen artean daguena da. Egurrrak egitura horrek euskarria du teiltakunari elize gainetik eta, teiltakutik urez sartzen bari delako, bandatzeko zorian dago. Argazkia Otxola eta Debaka kultur elkartekoa den Javi Castrok atzi digu. Orio ezagutzena etorri zirene behin eta, eliza ikusterakuen, don Andreesek eraman zituen gorzina.

## ELIZAKO ITUTEAK

'Jendeak badaki, gauarekin batera, hiru aingeru jaisten direla etxe bakoitzera. Eta lehena atean bertan geratzen dela, eta bigarrena logelan, eta hirugarrena sukaldlean. Eta hiruren aranean etxea ezin hobeki babestu eta zaintzen dutela.'

'Baina jendeak ez daki, gauarekin batera, hiru aingeru jaisten direla Jaunaren etxe bakoitzera ere; kapera, eliza edo katedral bakoitzera, alegia. Eta lehena arkuean bertan geratzen dela, edo elizdorrean edo koruan, eta bigarrena sakristian, eta hirugarrena aldare inguruau. Eta hiruren aranean Jaunaren etxea ezin hobeki babestu eta zaintzen dutela.'

**PATXI ZUBIZARRETA:** Gau bat aingeru aranean

TESTUA: ANA G. DE TXABARRI / ARGAZKIAK: JAVI CASTRO ETA ANA G. DE TXABARRI

Horrela ematen dio hasiera idazle ordiziarrak bere kontakizun ederrari, Gasteizko katedralaren zaharberritzelanak direla-eta egindako liburuan. Orioko elizako lehen aingeruak koruan bertan geratu beharko du, zimitarioan ur asko sartzen baita euria ari duenean, eta ez duelako zorte hoberik izango —baldin eta ez badu zira janxten, hego eta guzti ondo tapatuta egoteko— kanpandorrean. Bigarrena gusturago egongo da sakristian; eta hirugarrenak, aldare inguruan geratzen bada, erre-taula nagusiko pipien kompania izango du. Hirurak don Andresen lagun handiak dira, elkarrekin pasa dituzten urteak—hogetik gora—horretarako aitzakia ona izan haiti-n. Lauren artean ezin hoheto zaintzen dute Orioko eliza.

Baina, aidanez, hori ez omen da nahikoa eliza ezhondatzeko era, dagoeneko, kezkatzen hasiak dira laurak teilatuak dituen ajeekin.

#### ELIZA ZAHARRA

1379an, Juan I.a Gartzelako erregeak Orioko herria sortzeko baimena eman zuen, eta idatzit hartan bertan elizaren aurrean hiri-bildua eraikitzen hasteko esaten du. Ordukoa ez da gaur ezagutzen dugun eliza, beste txikiago bat baizik; baina txiki haren gainean dago egina gurea, eta ederki asko nabamentzen da, gainontzeko erreen gainetik, bere harrizko pareta sendoekin. Orio izan denetik, elizarekin izan da, elizari lotuta ditu bai izana eta baita izena ere.

Ikusten dugun gure han 1626an bukatu zuten eta horrela adierazi zuten harrian grabatuta utzirik: 'ACAVOSSE ANO DE 1626'. Inkripzioa goiko kalera ematen duen zimitarioan dago, atearen ondoan. *Egitu dugu!* esan nahiko zuten egindako lanen ostean; hainbeste ahalegindu etu gero, pozet eta harrotasunez.

#### PREMIASOZ LANAK.

*Gaineke harrera  
ziburu  
bundatuta du  
Ornuko elizak.  
Diputazioak  
eman behar du  
komunitateko  
lanak egiten  
baizeks  
baimena eta,  
egoera ikusita,  
lebentasuna  
emango dinko  
eza du.*



#### HILIOBIAK ELIZAN

Eliza Goiko kaleko bukaeran dago Donostiatik zetorren bidearen muturrean. Barrian nabe nagusi bakarra du, gangoz —kurbatutako estalkia— osatutako sabaiarekin. Bigarren nabe haterik, zabalera eta luzea txikiagokoa, gurutzearen itxora osatzen du nagusia zeharkatuz. Horma oso altuak ditu, ia leihorik gabeak. Burualde dotorea du; plantaren forma karratua goian kurba bihurtzeko, bi kontxa eder erabiltsen baitira. Korua izan

zen egin zen azkena eta lehenengo eliza txiki haren gain gainean eraiki zen. Ondo ikus daiteke hori bertan dauden hilobiengatik, ohitura baitzegoen lehen hildakoak elizan lurperatzeko, eta izen eta guzti gordetzen dira elizako atzealdean.

#### BERRITU BATEN PREMIAN

Ikusi dugunet, elizaren eta oriotarren arteko harremana aspaldikoa da. Eliza izaten da gure bizitzako hainbat pasarte nagusiko plaza eta, horretako agertoki ikusgarriak guzti lanak behar ditu, hain eder segitzeko.

Harrizko eraikinaren gainean teilarria dago, eta oso egoera txarrean egon ere. Teilarria mugiturra daude eta belaritzarrak nonahi azaltzen dira. Ura sartzen da erruz euri egiten duen bakoitzean eta, nahiz eta harruko egurrezko egitura —teilarriarensten diogea— oraindik ez egon oso hondtua, dena usteltzen hasteko arrisku bizian dago. Horrik segituan pasako litzateke

SABAITIN BEGINA. Gangake giltzarriari salatu bat dago etu bandik hortu zuen Javi Cartek fatua.



hezetasuna eliza barrura. Antzeko gauza gertatzen zaio kapandorreari, matxura asko di-tuela eta ur asko sartzen dela handik ere. Arazo berbera du, baita ere, zimitarioak: itoginez josita dago eta ura dariola hasten da euriarekin batera.

Aje ugari ditu, beraz, gure elizak, eta surrekoek mendez mende kontu handiz zaindu duten bezelaxe, gauza bera egitea egokitu zaigu guri ere. Teilitua dena berritu behar da, erretenak sildatu, urari bi-deak itxi, teilaberritu... berrukoari ahalik eta babeshan-diena emateko, asko beran-dutu baino lehen. 1857an ere egin zen obra handia elizan, eta, orduan, 18.590 erreal ordaindu zen. Orain, 31 milioi pezeta beharko dira. Dagoneko obrari buruzko txosten-a bidali zaio Diputazioari —berak eman behar baitu haimena, eliza monumentu artistikoa delako—, lanak

hasteko. Martxoan hartuko omen du erabakia; Orioko elizari lehentasuna eman baitiote beste batzuen artean, ikusita zein egoera larrian dagoen. Diputazioak berak lagunduko omen du diruarekin, eta baita Elizbarriutak eta Udalak ere; baina, don Andressk esan digunez, herritarren laguntza ere esku beharko da.

Lanak lehenbailehen hastea nahi du don Andressk, oso kezkatuta dagoelako. Gustatuko omen litzaioketan nikolasetarako dena bukatuta ego-tea, hurrengo neguaren astinduak etorri baino lehen. Esan digunez, herriko eliza ez da bakarrik eliztarrena, herriko guztien ondarea baizik, beraz, laguntza eskatzeo garaian, herritar guztiee zabaldu zaie deia. KARKARA, gutxienez, lanen gorabeherak garaiz eta zintzo ematen saiatuko da, irakurle guztiek jakinaren gaitan izateko.



**FORMA EDERRAK.** Forma argiak eta organo horiek diru gastuak, gehien bat, don Andressk elizan ikusten daudean.

**ANDRES GARMENDIA, APAIZA**

## *'Lehenbailehen egin behar da konponketa'*

*Atzo maite du don Andressk eliza. Batzuetan, gauzaz joaten omen da eta argiak pizten diru zein ederra den ikasteko. Askotan bertzen ditzan Andressk kantarrak eta gogo handiz erakusten die eliza. Oso gustu jasaten dira denak elizaren edertasunarekin barrituta eta apai-zaren bitzkein gosatz eta gero, bere maitasuna sio kurtajiarra baita.*

**—Zer erakusten diezu bisitariei?**

Niri gehien gustatzen zaizkidan gauzak. Elizaren forma eder eta argiak. Erro-sarioko Amaren bizitasuna Haurtxouarekin jolascan; santa Katalinaren liraintasuna; kantundorrera ere joaten gara; koru azpiko hilobiak ikusten ditugu eta azaltzen diet nola etsekoak, maite izandakoak, bertan edukitzeko, elizara ekartzen zituzten; eta organoak ere ikusten dugu, organo zo-ragarria, eta piska bat jotzen diet... Holako gauzak egiten ditugu.\*



**'Oriotarrek  
egin dute eliza,  
oriotarrena da,  
eta badakit seguru  
erantzungo dutela'**

**—Hain gaizki al dago teilitua?**

Bai, oso gaizki. Lehenbailehen egin behar da komponketa. Beste gauza batzuk ere badauude egin beharrak: hormetako harriak garbitu behar dira, tarteko zuloak ondo tapatu eta elizako inguruak tenkundu. Errantzia ere pipiak janda dago zeharo, eta konpondua egin behar da. Baina hori dena gerorako utzi behar da, teilitua ez badu konponzen elizarik gabe geratuko gara eta.

**—Zein laguntza behar da?**

Uste dut erakundeak portatuko direla; baina seguru nago Orioko herri izango dela, beti bezala, laguntza handiena.

Begira harri gastatu horiek, leun-leun daude hainbeste lagun pasa delako gaine-tik, hainbeste jendek eskua jarri dielako eta igurtzi. Oriotarrek egin dute eliza, oriota-rrena da, eta badakit seguru erantzungo dutela.

MIRARI ARRUABARRENA ELIZALDE

# 'Etxe guztiak saltzen dira'

*Lanpostua ISMn badu ere, Orioko Itsas Etxean, Mirari ELA sindikatuaren ari da lanean liberatua gisa. 10 urteko semea eta 8 urteko alabaren ama da eta, gainera, EAJku zinegotzia azken 5 urteotan. Legealdia bukatu arte bebitzat, Hirigintza batzordeko buru izaten jarraitzeko asmoa duela aitortu digu.*

RIKARDO UZKUDUN

**Nolatan sartu zinen sindikatuaren lanean? Eta zinegotzi?**

Nahigabe: Ni ELA afiliatura nengoen eta bila etorri zitzaitzidan bertan lan egiteko. Eta zinegotzi lanetan ere berdin: Jose Miguel Makazaga etorri zitzaidan zerrenda osatzeko jendea behar zutela esanez eta konbentzitu egin ninduten. Ni neu politikagintzan ez nuen neure burua ikusten, nahiz eta gaia interesatzen baita familiaknen laguntzari esker jarrainditzan oraindik ere.

**Zer balorazio egiten duzu udalean daramazun urteearia?**

Asko ikasten da. Alde batek, herriko martxaren berri izaten duzu; gainera, nik uste dut familia bakoitzeko norbaitek pasa beharko lukeela Udalak herriaren lana zein den jakiteko. Hitz egitea erraza da, baina gauzak martxan jartzear oso zaila izaten da administrazioa oso mantsoa baita.



35. URTEDO EMAKUMEA. ELAko udaletarain eta etxean, bida nabiko lan.

Bestalde, jendea ezagutzen asko ikasten duzu, eta, jakintza, desilusio handiak izaten dituzu zenbait pertsonarekin. Orokorki, saltsa niri dezentegustatzen zaidanez, gustura nabil, nahiz eta batzuetan norberarentzat denbora gehiago nahi izan.

**Alderdi abertzaleen elkarlanerako akordioa sinatzeak izan al du udaletxeko giroan eraginik?**

Uste dut baitetz. Denok artxagarra ahalegina egiten elkarlana handitzeko, hori bai, batzak beste batzuk baino gehiago. Hartuemanak ere han-

diagoak dira elkar laguntzeko.

**Legealdi honetan Hirigintza batzordeko buru zara. Zer proiektu dituzue esku artean hiru urte hauetarako?**

Lanik handiena arau subsidiarioak berritzen izango dugu, eta horrek legealdi osoa eramango du, noski. Gure planteamendua lan talde bat osatzea da aukera guztiak aztertzeko. Lan talde hori huek osatuko luke: lege-gizon batek, herriarkitektoak, ingeniero batek eta natur gaietako aditu batek. Gero geru-

nek hartuak genmike azken erabakia. Geroni hasi eta gero oztropoak topatu beharrean, horrela hobetzen dela uste dugu. Aurtent hasi behar dugu lan horretan.

**Zertan da industrialdea?**

Nik Motondo aldea baztertu du dagoeneko; arte askotako alferlana izan da hangoa. Hainbeste urtean saltu eta gero egin ez bada, zerbitzategatik izango da, kontu gehiagotan sartu gabe. Nahigo dut beste aukera batzuk bilatzea. Marroka aldea izan daitekeela esaten duite batzoek, beste batzuek Aizperro ingurua; ondo aztertu beharko dira gauzak. Lehen aipatutako lan talde horrek esan beharko dira zein diren leku onenak; baina, horretan hasteko, arau subsidiarioak zehaztu zain egon behar dugu, nahi eta nahi ez.

**Autopistaren sarrera-irteera eta bariantea noiz ikusiko ditugu?**

Duela hamabost egun egon ziren herriko ordezkariek Antxon Jaime Garraio Diputatuarekin, eta, autopistaren sarrera-irteera 2002tik 2004ra egingo dela agindu zuten. Barianterako zubi berria ere egingo dela baiezatu zuen eta obra horren lehen fasea berehalde hasiko omen da. Trenbideko pasosibela kentu beharra dago —legeak agintzen du— eta hori dela eta, Mota arteko txukunduko dute, beti ere, barianteko Zubian pensatuz. Horretarako bota dute Izkiña tuberkuloko etxea.

**Eta kirolddegia?**

Azkeneko aktuazio plien arabera, ekainaren 16rako bukatuko dute; empresa eraikitzaileak horrelaxe agertu

**'Motondo baztertua dut industrialdea egiteko; urte askotako alfer lana izan da hangoa.'**

zuen orain dela gutxi. Hamabost bat egun luzatutu ere, nik uste sanpedrotarako prest egongo dela. Beste kontu bat martxan jartzea da; hobe da udazkenean behar den bezala irekitzea udarako nola edo hala irekitzea baino. Gainera, udan Orion ez dago behar handirik kirolegia irekitzeko.

#### Zertan dira hondartzak aldeko plangintzaren 2. fasea eta kirol portua?

Oraindik zehazteko dago. Abokatu bat ari da juridikoki hori prestatzen, Pablo Ruiz del Cerro donostiarra, baina luzatu egingo da. Hala ere, arau subsidiarioena hasteko dagoen bezala, hori bidean da.

Kirol portua ere egingo delakoan gaude, eta horretan salatuko gara; esperuntza badugu.

#### Goiko Kaleko auzokideek idatzi bat sartu dute Udaldean, aparkaleku falta eta beste salatuz. Zer irtenbide du horrek?

Bada aukera bat denbora gutxiñ egin daitekeena: Benetako etxe ondoan dauden haratzen lekuak egin daitezke aparkalekuak. Ahozko akordiora ailegatu gara lurjabeenkin, arkitektroak oinarrizko projektua ere egin du eta 30 bat aparkaleku ateratzeko posibilitatea egongo da bi solairutan. Lur azpiko aparkaleku horien gainean parke bat egiteko asmoa dugu. Aparkalekuak itxiak izango lirateke, bakoitzak bere atearekin, jakina. Baino, horren aurrean, baldintza bat jarriko du Udalak. Ez dadila gertatu Anibariko Portuan gertatu zena, aparkalekuak egin eta ezin saldu. Oraindik 15 garaje Udalaren esku daude han jendea erosten aanimatu ez zelako. Ondorioz, Udalak gutxieneko kompromisoa eskatuko die auzokideei egiten hasi aurrelik. Ez dago tokirik kaleko aparkamenduak egiteko. Gainera, Goiko Kaleak parke bat merezi du, giro pixka bat sor-

## 'Oriorentzat Madrilen zerba lortzeko aukera balego, ni joan egingo nintzateke.'

tuko luke.

Garajeen kostuak oraindik ez daude aztertuta; baina, hori egiten denean, jakin beharko dugu zenbat jende egongo litzatekeen prest garaje horiek erosteko. Jakina, kostu prezioan izango lirateke. Udalak gutxieneko kopuru bat ziurtatu behar du.

#### Etxe asko egin da azken urteotan; gehienak iniziati- ba pribatukoak eta gares- tiak. Ez al da etxebizitzen politika moldatu behar?

Egiten diren etxe guztiak saltzen dira-eta! Ni, neroni, jo eta lor nago pisuak nola saltzen diren ikusita. Nik zu esandakoak adiro ditut kalean eta garestiak direla pentsatzentzu ditzu; baina etxeak egiten diren heinean saltzen dira. Gainera, herriko jendeak erosil ditu gehienbat, ez da kanpoko jendea sartu apena. Orion gertatzen dena zera da; gazteek bigarren eskuko etxeak erosten dituztela, gero,

urte hatzuk pasata, zaharra saldu eta berria erosten dute-la.

Espainiako hauteskundeak datoak, EAJk eta EAK botoa eskatu dute eta EH, berriz, abstentziorako deia zabaltzen ari da. Zer iruditzen zaizu hau guztia?

Egia esan, nik nire burua ez daukar politikotzat. Orduan, ez naiz ausartzen balorazio politikorik egiten. Baini niri iruditzen zait, non borrokatzentzen den hara joan behar dela. Orioko herriak Ortzaika arteko bidea Madrilgo dirutik egiteko aukera badu, hara joan beharko du. Madrilgo lotura guztiak mozteko posibilitatea balego eta gu geñe buruaren jabe bagina, primeran; ni independentziaren alde hainago. Orain, bitarte horretan Oriorentzat Madrilen zerba lortzeko aukera balego, ni joan egingo nintzateke. Horretarako, oso importanteak dira hemengo parlamentarioak, bi-

tartekari lana egiten date-eta.

Bestalde, herri txikietan jende bat ez da joango botoa ematera politikoki identifikatutako ez duelako; beldur hori dut nik, behintzat. Abertzale batzuek bozkatzera joateari laga diezaiokete, garbi ez geratzeko ez direla EHkoak. Abstenitzen dena, berriz, EHkoak dela pentsa daiteke. Horiez gertatzeko EHri boto zuria aldarrikatzeko eskatuko nioke, eta ez abstentzioa.

